

EGUNEKO AHOLKUA

17. AHOLKUA: ONTZIAK – KONPOSTA. Edukiontzi marroira



KONPOSTA

Zer da konposta eta nola lortzen da?

Hondakin organikoak ez ditugu alferrikako hondakintzat jo behar. Izan ere, oso baliabide baliotsuak dira. Konpost bihurtu ostean, materiaren zikloa jarraitzen lagunduko dute. Konposta materia organikoa (adarrak, hostoak, janari-hondarrak etab.) naturalki deskonposatu ostean lortzen da, bide aerobikotik. Horretarako, mikroorganismoek (bakterioek, onddoek etab.) eta organismo txikiek (zizareek eta kakalardoek alegia) beren lana egiten dute eta oxigenoa behar dute.

Etxebizitzetan egunero sortzen den zaborraren %40 materia organikoa da eta birzikla daiteke. Ondoren, lurrera itzuliko da landareentzako edo laboreentzako konpost moduan. Gainera, bide horri eutsiz, hondakin gutxiago iritsiko dira zabortegira edo balioa emateko plantetara. Konpostatu ostean, materia organikoaren bolumena %75-80 murrizten da, hau da, konpostagailuan sartutako materia organikoaren 100kg-ko 20-25kg konpost lortzen dira.

Gainera, konpostak ongarrien aldean balio erantsia du: biek lurrari elikagaiak eskuratzen dizkiote baina bakarrik konpostak hobetzen du lurzorua egitura.

Norberak materia organikoa konpost bihurtzeko konpostagailua erabil dezake, mekanismorik eta motorrik erabili gabe eta mantentze-gasturik gabe.

Zer bota daiteke edukiontzi marroira?

- Barazki hondarrak (gordinak nahiz prestatuak): frutak, fruitu lehorrak, haziak, barazkiak, loreak, landareak eta belarra.
- Animalia hondarrak (gordinak nahiz prestatuak): haragia, arrautza, arrautza oskola, arraina, mariskoa, hezurak, gazta eta ilea.
- Sukaldeko papera, paperezko zapiak, kartoizko arrautzontziak eta kartoi arrunta ZIKINIK EGONEZ GERO. Garbi egonez gero, gogoan izan edukiontzi urdinera botatzekoak direla.
- Ogia, galleta eta opilgintzako hondakinak.
- Kafe hondar eta iragazkiak, eta infusio hondakin eta poltsatxo erabiliak (graparik gabe)
- Kortxozko tapoiak.

Zer lortzen dugu?

- Materia organikoa zabortegietara bidaltzeak badu bere kostu ekonomiko baita ingurugiro aldetik ere. Zabortegietan sortzen den metanoak, berotegi efektuan CO2 isuriek duten partaidetza baino handiagoa du (23 aldiz handiagoa) Gainera likido kutsatu bat ere sortzen da bertatik erauzi beharra dena inguruko terreneak kutsatu ez daitezen. Hondakin guzti hauek askotan erraustu egin ohi dira.
- Hondakin organikoek duten potentzial biodegradagarria guztiz galtzen dute zabortegietan, bertan ezingo baitute luraren zikloan sartu eta biodegradatu. Konposta ongarri gisa erabiltzeak diru aurrezte handia dakar.
- Lurrarentzako mantenugaia da, luraren estruktura hobetzen du, erosioa murrizten laguntzen du eta landareei ura eta elikagaia xurgatzen laguntzen die.